KRISIAREN AURREAN GIZARTEAK ERANTZUN BEHAR DU
GURE BIZITZEK EUREN ETEKINEK BAINO GEHIAGO BALIO DUTE

Euskal Herriko egungo egoera ekonomiko eta soziala dramatikoa da benetan. Krisia hasi zenetik langileria soilik izan da kapital handiak eta hainbat urtetako espekulazio finantzario eta inmobiliarioak eragindako porrot ekonomikoaren ondorioak jasan dituena.

Aurreko mendean hasitako eta mende honen hasieran amaitutako hazkunde ekonomikoak ez du langileriarentzako benetako aberastasunik edo ongizate sozialik ekarri. Hazkunde garaian irabaziak pribatizatu egin ziren. Gaur egun galerak dira sozializatu egiten direnak.

Nazioarteko Diru Funtsak, erreforma "urgente eta erabakigarriak" egitera dei egin dio Espainiako Gobernuari, "ekonomiaren oreka berreskuratzeko" eta "konfidantza sendotzeko". Berehala iritsiko diren erreforma neoliberalen atarian gaude. Erreforma hauek lan erreforma abian jarri eta ongizate Estatua zalantzan jarriko duten neurri fiskalak suposatuko dute, langileriak bere eskubide eta interesen defentsan hainbat hamarkadetako borrokaren ondoren lortutako lorpenak arriskuan jarriz.

Langileria eta herri-klaseen kontrako ofentsiba kapitalista honen aurrean, mugimendu sozialetatik, eta langileen sindikatu eta erakunde politikoetatik hurrengoak bezalako ezkerreko neurriak aurkeztu eta defendatu behar ditugu:

-Lan duinaren alde. Prekarieta eta behin-behinekotasunaren kontra:
· Azpikontratazio eta behin-behineko kontratazioaren amaiera
· Lan ikuskatzeen igoera
· Etorkinen erregularizazioa
· Lan munduan gazteen sarrera errazteko plan bereziak

-Lanaren banaketa, langabeziaren kontrako borroka:
· Aparteko orduen debekua
· 35 ordutako lanastea soldataren murrizketarik gabe

-Aberastasunaren banaketa. "Mileurismoaren" amaiera:
· Ondasunen gaineko zergaren berreskuraketa eta sozietateen gaineko zergaren igoera
· Kapitalen zirkulazio askearen eta SICAVen amaiera
· Zeharkako zergen izozketa eta murrizketa
· Eredu fiskal progresiboa
· 1.200 eurotako gutxieneko soldata
· Arma erosketen izozketa
· Pentsio planen eta etxebizitza erosketen zerga kenketen amaiera

-Etxebizitza eskubidea da. Espekulazioaren amaiera:
· Hutsik dauden etxebizitzen desjabetzea
· Batez besteko soldataren %30ª gainditzen ez duten alokairuzko etxebizitza publikoen parkea
· Kide guztiak langabezian dituzten familien kaleratzeen luzamendua

-Hezkuntza eskubidea da. Hezkuntzaren merkantilizazioaren amaiera:
· Unibertsitate-tasen izozketa eta deusestatze progresiboa
· Boloniako prozesuaren izozketa
· Itundutako eskolarik gabeko hezkuntza
· Dohako eskola publikoak

-Sozialki eta ekologikoki jasangarria den eredu produktibo baten alde
· Kreditua demokratizatuko duen banka publiko baten sorrera
· Kooperatibismoaren eta ekonomia sozialaren sustapena
· Garraio publikoetan oinarritutako garraio eredu jasangarria, dohakoa edo oso merkea
· Ekonomiaren arlo nagusien nazionalizazioa: energia, garraioak eta komunikazioak

-Politikaren profesionalizazioaren kontra. Politikariak gizartearen zerbitzura:
· Herritarrek politikoak edozein momentuan kargu publikoetatik kentzeko aukera
· Kargu publikoen soldatei muga jarri: gutxieneko soldata 3 aldiz
· Demokrazia partizipatibo eta zuzena abian jartzeko ereduak garatu
· Aurrekontu partizipatiboen garapena
· Derrigorrezko erreferenduma azpiegitura handiak egin baino lehen

Erakunde sozial, sindikal eta politikoen erantzuna sendoa izan behar du eta horretarako baldintzak sortu behar dira, oztopoak alde batera utziz eta krisiaren ondorioak kudeatu baino helburu handiagoak jarriz. Eta behar adina aldiz esango dugu: krisia eragin dutenek ordaindu dezatela. Behar honi irtenbidea aurkitzen ez zaion bitartean, gatazka soziala mahai gainean izango da.

LA SOCIEDAD DEBE RESPONDER ANTE LA CRISIS
NUESTRAS VIDAS VALEN MÁS QUE SUS BENEFICIOS

La actual coyuntura económica y social en Euskal Herria es ciertamente dramática. Desde que se iniciara la crisis, ha sido exclusivamente la clase trabajadora la que ha pagado las consecuencias de la bancarrota económica provocada por el gran capital y años de especulación financiera e inmobiliaria desmedida.

El ciclo de crecimiento económico de finales del siglo anterior y principios del actual no generó riqueza real ni bienestar social para el conjunto de la clase trabajadora. En época de crecimiento se privatizaron los beneficios. En la actualidad, son las pérdidas las que se socializan.

El FMI ha instado al Gobierno Español a aplicar reformas "urgentes y decisivas" para "reequilibrar la economía" e "impulsar la confianza". Estamos, pues, asistiendo al paquete de reformas neoliberales que han de llegar de manera inminente, con una reforma laboral y un paquete de medidas fiscales que pondrán en jaque el Estado del bienestar, y muchos de los logros alcanzados por el movimiento obrero en décadas de lucha por sus derechos e intereses económicos y laborales.

Ante esta ofensiva capitalista contra la clase trabajadora y las clases populares, desde las asociaciones sociales, sindicales y políticas de la clase trabajadora tenemos que plantear y defender alternativas de izquierda como las que proponemos a continuación:

-Trabajo digno. Contra la precariedad y la temporalidad:
· Supresión de la subcontratación y la contratación temporal
· Aumento de la inspección de trabajo
· Regularización del colectivo migrante
· Planes específicos de inserción laboral para jóvenes

-Reparto del trabajo, lucha contra el paro:
· Prohibición de las horas extras
· 35 horas por ley sin reducción salarial

-Reparto de la riqueza. Fin del mileurismo:
· Restituir el impuesto sobre el patrimonio y aumentar el impuesto de sociedades
· Fin de la libre circulación de capitales y de las SICAV
· Congelación y reducción de los impuestos indirectos
· Sistema fiscal progresivo
· Salario mínimo interprofesional de 1.200 euros
· Congelación de la compra de armamento
· Eliminación de deducciones a los planes de pensiones y compra de vivienda

-La vivienda como derecho. Fin de la especulación:
· Expropiación de las viviendas vacías
· Parque público de viviendas en alquiler a un coste no superior al 30% del salario medio
· Moratoria en los desahucios a familias con todos sus integrantes en paro

-La educación como derecho. Fin de la mercantilización de la educación:
· Congelación y eliminación progresiva de las tasas universitarias
· Paralización del Proceso de Bolonia
· Educación sin escuelas concertadas
· Escuela pública y gratuita

-Por un nuevo modelo productivo social y ecológicamente sostenible.
· Creación de una banca pública que democratice el crédito
· Fomento del cooperativismo y la economía social
· Modelo de transporte sostenible basado en el transporte público, gratuito o muy barato
· Nacionalización de los principales sectores de la economía: energía, transportes y comunicaciones

-No a la profesionalización de la política. La política entendida como servicio a la sociedad:
· Cargos públicos revocables en cualquier momento por la ciudadanía
· Limitación del salario de los cargos públicos a 3 veces el Salario Mínimo Interprofesional
· Implantación de sistemas de democracia participativa y directa
· Desarrollo de presupuestos participativos
· Obligación de realizar referéndum previos a la construcción de grandes infraestructuras

La respuesta de las organizaciones sociales, sindicales y políticas ha de ser contundente y para ello se han de preparar las condiciones, despojándose de ciertas rémoras y aspirando a algo más que gestionar los efectos de la crisis. Y lo diremos cuantas veces haga falta: que la crisis la paguen quienes la han provocado. Mientras no se resuelva tal necesidad, el conflicto social estará servido.